

GETXOKO ENPRESENTZAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA: BERRIKUNTZA ETA TURISMO-JARDUERA BERMATUAK. 2025. URTEA

1. ildo. Udalerriko berrikuntzako enpresa eta profesionalentzako laguntzak: negozio-ildo berriak, produktu edo zerbitzu berriak, eta merkaturatzeko edo eraldaketa digitala egiteko modu berriak martxan jartzea.

<p>Helburua</p>	<p>Helburua da udalerriko profesionalak eta enpresak berritzaileak izan daitezen sustatzea, honako xede hauek betetzeko: zerbitzu, produktu eta/edo horiek merkaturatzeko modu berriak ezartzea; enpresek eraldaketa digitala gauzatzea; udalerriko herritarren bizitza hobetzea; eta udalerrian kokatuta dagoen enpresa/negozioa mantentzeko edo sendotzeko mugarri izan den edozein motatako eraldaketa-prozesua gauzatzea. Berritzaileak diren aldaketak soilik hartuko dira kontuan.</p>
<p>Onuradunak</p>	<p>Getxo udalerrian ekonomia-jardueren gaineko zergaren pean dauden pertsona fisiko edo juridikoak, zeinen jarduera 2024-01-01a baino lehen hasi baitzen.</p> <p>Honako hauek dira deialdi honetan jasotako laguntzak eskatu ahalko dituztenak: norberaren konturako langileak edo autonomoak eta profesionalak; nortasun juridikorik gabeko ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak; eta legez eratu diren mikroenpresak eta enpresa txikiak.</p> <p>Baztertuta geratuko dira elkarteak, klubak, fundazioak, eta irabazteko asmorik gabeko erakundeak oro har, lankidetzan aritzen diren langile autonomoak, ondare-sozietateak eta sektore publikoko erakundeak.</p>
<p>Diruz lagundu daitezkeen jarduerak</p>	<p>Diruz lagunduko dira hirugarrenen zerbitzuak kontratatetik sortzen diren gastuak, enpresan aldaketa berritzaileak egiteko xedeari lotuta. Aldaketa horien adibide izan daitezke produktu eta zerbitzuak dibertsifikatzea, eta merkaturatzeko eta/edo banatzeko kanal berriak abian jartzea. Soilik hartuko dira kontuan deialdiaren urtean egindako aldaketak, baldin eta arrazoitzen bada funtsezkoak izan direla edo izan daitezkeela enpresaren lehiakortasuna mantentzeko.</p> <p>Hainbat proiektuengatik eskatu ahalko da laguntza, baina eskaera bakartzat joko da, eta enpresa bakoitzak jaso dezakeen gehieneko laguntza 17.4. artikuluan ezarritakoa izango da (Enpresa bakoitzak 2.500 euroko dirulaguntza eskatu ahalko du gehienez).</p>



<p>Diruz lagundu daitezkeen gastuak</p>	<p>Honako gastu hauek lagundu ahalko dira diruz:</p> <ul style="list-style-type: none">- Zerbitzu eta/edo produktu berri horren komunikazio-kanpaina diseinatzea, bai eta kanpaina egiteagatiko gastuak ere; enpresaren irudi korporatibo berria diseinatzea; produktu edo zerbitzu berria merkaturatzeko erabili diren katalogoak, diptikoak, triptikoak edo zabalkunderako beharrezkoak izan diren beste euskarri batzuk diseinatzea.- Webgunea berriro diseinatzea; komunikazio-plana diseinatzea sareetan eta/edo sare sozialen kanpo-kudeaketa egitea.- Enpresaren eraldaketa digitalaren alorrean, <i>ecommerce</i> delakoa gauzatzeko edo beste gastu batzuetarako ordainketa-pasabideak ezartzeari buruzko aholkularitza, merkaturatzeko kanal berriak ahalbidetzeko xedearekin.- Aurretiko materiala prestatzea, eta produktu edo zerbitzu berria zabaltzeko aurkezpen digitalak, grabazioak, bideoak eta beste material batzuk barne hartzen dituen gidoia egitea.- Enpresak berrikuntzaren bat ezartzea eragiten duten ekintzei lotutako beste zerbitzu profesional batzuk, behar bezala justifikatutakoak. <p>Kontratazioaren xede diren zerbitzu eta/edo produktuetan espezializatutako hornitzaileei azpikontrataturako gastuak soilik hartuko dira kontuan. Ezingo dira diruz lagundu honako hauek: langileen gastuak, zeharkako kostuak, finantza-gastuak, aholkularitza juridiko edo finantza-laguntzako gastuak, notario- nahiz erregistro-gastuak, aditu-gastuak, edo berariazko administrazio-gastuak.</p>
<p>Zenbatekoa</p>	<p>Enpresa bakoitzak 2.500 euroko dirulaguntza jaso ahal izango du gehienez. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuari dirulaguntzaren gehieneko ehuneko jakin bat aplikatuko zaio, eta aipatutako 2.500 euroko muga. Horrez gain, dirulaguntza guztiak aintzat hartuta, ezingo da gainfinantzaketarik egon.</p>
<p>Bateragarritasuna</p>	<p>Deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuetatik datozen beste laguntza batzuekin, salbu eta Getxoko Udaletik datozenekin eta kontzeptu berberetan eman direnekin; nolahi ere, ordaindu beharreko zenbatekoa, beste laguntza batzuekin batera, ez da inola ere izango diruz lagundutako ekintzen guztizko kostua baino handiagoa. Halakorik gertatzekotan, murriztuko da Getxoko Udalak eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa.</p>



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

Betebeharrak	<p>Laguntza horien onuradun diren pertsona eta erakundeek zenbait betebeharrak bete beharko dituzte, bat etorri Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak 14. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak 10.2. artikuluan ezarritakoarekin. Horrez gain, honako betebeharrak izango dituzte:</p> <ol style="list-style-type: none">Ebazpena eragin zuten betekizunei eta inguruabarrei lotuta gertatzen diren aldaketak jakinaraztea.Udalaren oniritzia eskatzea, baldin eta ez bada aurkeztutako aurrekontu osoa egikaritu edo aurkeztutako proiektuari dagokionez aldaketaren bat egin nahi bada. Eskaera horretarako epemuga 2025ko azaroaren 30a izango da.
Eskaerak aurkeztea	<p>Laguntzen eskaerak telematikoki izapidetuko dira, honako webgune honen bidez: www.getxo.eus/oae</p> <p>Eskaerak egiteko epea: martxoaren 11tik apirilaren 10era.</p>
Ordaintzeko modua	<ol style="list-style-type: none">Zenbatekoaren % 75 ebazpena eman ondoren.Gainerako % 25a ezarritako betekizunak bete izana justifikatu eta egiaztatu ondoren.
Justifikazioa	<p>Diruz lagundutako jarduera amaitu eta 45 egun baliodun igaro baino lehen aurkeztu beharko da justifikazioa, honako kasu hauetan izan ezik:</p> <ul style="list-style-type: none">Abenduan egiten direnak, zeinak gehienez deialdiaren hurrengo urteko urtarrileko azken egunean justifikatu ahalko baitira.Udalaren oniritziarekin abenduaren 31tik aurrera egiten direnak, zeinak gehienez deialdiaren hurrengo urteko otsaileko azken egunean justifikatu ahalko baitira.
➤ Informazio gehiago hemen:	<ul style="list-style-type: none">➤ Getxolan. Getxo Elkartegia. Ogoño kalea 1. Getxo (Areeta). Telefono-zenbakia: 94 466 01 40.➤ Helbide elektronikoa: getxolan@getxo.eus➤ Webgunea: http://www.getxo.eus/promocion-economica➤ Deialdia: BAO 47 zk., 2025/03/10